

BIXENTE IZKIERDO, URRUÑAKO DITXOLARI HANDIA

Betidanik entzun dut Urruñan izan zela ditxolari handi bat, adineko herritarren oroitzapenetan ongi atxikia dena. Xanpun bertsolaria ere harekin trebatu omen zen errima kontuetan. Tamaletz, nehon ez dut deus idatzirik topatu gizon honetaz. Hori dela eta, ezker-eskuin galdezka hasi natzaie adineko hainbat herritarri. Badakit atzeman dudana ez dela ainitz, gehiago badela urruñarren kontuetan atxikirik, baina hauxe da nik atzeman eta beraz, papepera ekarri dudana.



Bixente Izkierdo 1895. urtean sortu zen Urruñako Ziobehere etxaldean, familia bordari batean. Anai-arreba franko ziren etxean. Ez zen eskolan ibili eta ez zekien irakurtzen, baina bazuen berezko jakituria bat bere mintzairan gazte-gaztetik islatzen zena. Edozer erraiten ziotelarik, berak bazekien erantzun errimatu bat ematen, gehien-gehienetan irringarria zena. Hori bai, beti errespetuzko erantzunak ziren, emazteekiko lizunkeria merkeetan nehoiz erori gabe. Mintzatzeko zuen abilezia horrek famatu egin zuen herrian, eta urruñarrek maite eta errespetatzen zuten.



Donadoa zen, gizon mehea, 1,75 inguru neurtzen zuena. Janzkera tradizionala erabiltzen zuen: atorra, galtza, abarkak eta buruan beti euskal kapelua. Lepotik gibelera zintzilik ainitzetan parasola eramaten zuen eta botoilatxo bat izpirituz betea sakelan. Bizpahiru egunetako bizarra moztu gabea eta begi zorrotzak aurpegian. Gizon serioa zen eta irri guttikoa. Edaria zen bere bekatu ttikia. Badirudi maite zuen neska beste batekin ezkondu zela eta edariak penak uxatzen laguntzen ziola. Galtza bakarra omen zuen, eta berak kontatzen zuenez, arreba batek garbitzen zion guztietan, ohean egoten zen.



Etxean hainbat behi eta baratza bazituzten ere, Bixente herriko etxeetan laguntzen ibiltzen zen sos batzuen edo jateko-
ren truke. Hori dela eta, ainitzetan herriko beste etxeetan gel-

ditzen zen bazkaltzen, afaltzen edota baita lo egiten ere. Erdi hargina zen, eta paretak egiten ere bazekien.

Kontrabandan ere ibili omen zen izpiritua edo pattarra He-goaldetik pasatzen. 1967an, 72 urte zituelarik, zendu zen.

Arotzenia ostatuko seme den Pierrot Haltzuet-ek ttikia zelarik ezagutu zuen, ostatuan sarturik. Pierrotek garai hartan hamabi bat urte zituen, gaur berriz, 84 urte ditu, baina burua bizkor eta gorputza osasuntsu.

Gogoan du Bixente Izquierdo behin joan zela etxera belarmeta bat egitera. Horretarako zurubi bat erabiltzen zuen. Meta eginda, solasean aritu ziren kafe baten inguruan etxe-ko jauna eta Izquierdo. Garaiko politikaz ari omen ziren. Haltzuet jaunak *“hau egin dute eta bestea. Ez dakit zer izan den gutaz horrela jarraitzen badute”* eta ohikoak erraiten ari zitzaizkion. Bixentek hitza hartu eta honela erantzun zion: *“Instantean joan beharko dugu mendirat eta bazterrekoak erdirat.”*

Zugasti-baitako seme den 86 urteko André Zugastik honako gertakizuna kontatu dit: *“Behin, Izquierdo Ibardineko bidetik herrirat heldu zela, jendarme batek Alto, les papiers! erran zion. Eta Izquierdok erantzun: vous à moto et moi à pied.”*



Beñat Elizondok honako hau kontatu dit. Behin herritar batek Izkiardoren zapeta xilatuta ikusirik honela erran omen zion: *Bixente, zergatik eramaiten duk zapeta xilatuta? Eta Izkiardok erantzun: Zangoa sartzeko.*

Ttotte Etxebestek erran didanez honako kontakizunak ainitzetan entzun zizkion bere aitaxiri. Behin etxalde batean ari zen arto jorran, eta etxera itzuli zen iduriz aski goiz. Laborariak galdetu zion: *Zer Bixente, jadanik bukatua? Eta Izkiardok erantzun: Bai punta batetik bestera.* Laboraria joan zen ikustera eta lehen arto lerroa eta azkena zituen bakarrik jorratuak. Beste aldi batez, Ttotteren aitaxik aurkitu zuen iduriz soroko alanbrean harrapatuta. Aitaxik galde egin zion noiztik zegoen

hor, eta Izquierdok erantzun: *Gaua hemen pasatu dut eta bizirik naiz botoilan nuen izpituari esker.*

Emazte urruñarra duen Antton Luku idazle handiak hone-la kontatzen du *Euskal kultura?* izeneko liburu ospetsuan: *Urruñan 1950-60 urteetan karrikan gora karrikan behera zebilen Bixente ditxolari famatua. Arratsalde apal batez herriko ostatu batera sartu zen balantzaka, afaria sukaldean prestatzen ari zelarik etxeko anderea. Bertute handiko emaztea, bere lekua atxikitzen baitzuen herrian. Eta karlosari ohartzearekin, mozkorrek ez omen baitute deus entzuten, goratik bota zuen: Ui, oi! Honek egun ere badu nabikoa! Bixentek so zikin batekin hitzetik hortzera: Denentzat da Jainkoa!*

Baina, zalantzarik gabe, pasadizo gehien kontatu didana Mattin Aldako izan da, duela 77 urte Hattinga-baita etxean sortua dena. Honen aita, Dionisio zena, Bixenteren komunioko laguna zen, eta ditxolaria biziki ongi ezagutu zuena.

Behin, Bixente etxera joan zitzaien eta Mattinen Josef anaiak honela erran omen zion: *“Egun on, Bixente. Zu beti promené. Eta Izquierdok erantzun: aberatsak beti ibiltzen ziren ere.”*

Bixentek bazuen Antton izeneko anaia bat, hil zitzaiona. Behin Antton hilik zegoela ez zekien batek anaiaz galdetu zion: *“Non duk Antton? eta Izquierdok erantzun: Antton ban duk, zeruko atean planton.”*

Hargina trebea zela, dudarik ez. Behin egin omen zuen zerri-etxola bat eta borta egiten ahortzi. Beste behin, berak egindako paret bat erori omen zen eta nagusiak Bixente ikustean honela erran zion: *“Hik egin paret erori duk! eta Izquierdok erantzun: ez nian betiko egina!”*

Etxeberri jaun erretorak behin deitu omen zion eskolako paretak kisuaz xuritzeko. Eskatu behar zizkion sosengatik kezkatuta honela galdetu zion: *Errazu Bixente, ez didazu*

hautsiki haundirik eginen? eta Izkierdok erantzun zion aboan eskas zituen hortzak erakutsiz: nere hortzekin ez!”

Ainitzetan lanik gabe egoten zela eta, adiskide batek laster Ziburuko portuan itsasoratu behar ziren arrantzaleak gogoan zituela honela erran omen zion: *Baina Bixente, ez duzu lanik? Ibili beharko zinuke arrantzan. Eta Izkierdok erantzun: urerat erori lehenbiziko balantzan.”*

Gaur Clément Laurenzena karrika den pettarra beheiti zihoa-la behin, jendarme ezagun batzuk hurbildu zitzaizkion eta bere parean joanik hitz egiten zioten. Halako batean behetik goitti heldu zen jaun erretorak ikusi, eta preso zeramatela pentsatuta honela erran omen zion Bixenteri: *“Ai Bixente, orain ere hauekin zoaz? eta Izkierdok honela erantzun: nabiago dut hauekin zurekin baino. Erretora enterramenduetan ibiltzen baitzen.”*



Mattin Aldakoren aitaren anaietako batek Lorentxo izena zuen. Behin norbaitek honela galdetu omen zion gure ditxolariari: *“Bixente, ezagutzen zinuuen Lorentxo? eta Izkierdok erantzun: bai Lorentxo sortua zen ni baino lehentxo!”*

Hauek eta ainitzez gehiago dira Urruñan Bixente Izkierdoz kontatzen direnak. Norbaitek bildu beharko lituzke denak liburu batean. Bitartean, eta zoritxarrez, hau bezalako artikulua laburrekin konformatu beharko. Bixente Izkierdo pertsonaia izan da Urruñan, xelebrea, eta arras maitatua, bere erantzun errimatuekin urruñarren bihotza pizten eta alaitzen baitzekien. Hil zenetik berrogeita bederatzi urte pasatu diren arren, haren erantzunek eta haren umoreak bizi-bizirik jarraitzen dute urruñarren oroitzapen kolektiboan, eta luzaz horrela izanen delakoan nago.

*Joseba Aurkenerena
Marrazkilaria: Lander Zurutuza*